

IDEIA

Duela egun gutxi gure adiskide batek tibia eta peronea apurtu zituen skatean ibiltzen ari zela. Ordutik, makuluekin dabil eta 50 metro baino gehiago ezin ditu egin geldialdia egin gabe, asko nekatzen baita. Klasean ere, eserita dagoela beste aulki bat behar du hanka goian edukitzeko.

Lagunok, bere arazoari irtenbide bat bilatu nahian, pentsatu genuen posible izango zela zerbait asmatzea atsedean hori edozein unetan eduki ahal izateko.

“Bota walker”, horrelako lesioa duten pertsonen hankean ezartzen zaien bota moduko babeslea, bati hiru euskarri jarri ezkerrean, lan asko ematen dioten momentu hauetan, atsedean hartzeko ezin hobeto etorriko litzaioke.